

Lurra eta unibertsoa

1.Unibertsoaren osagaiak honako hauek dira:

- a. Astro guztiak eta haien artean dagoen espazioa.
- b. Izarrak eta konstelazioak.
- c. Asteroideak eta kometak.

2. Izarrak...

- a. gas-esfera erraldoiak dira.
- b. harri zatiak dira.
- c. astro izoztuak dira.

3. Zer dira konstelazioak?

- a. Planeta multzoak.
- b. Izar multzoak.
- c. Asteroide multzoak.

4. Planetak astro handiak dira, esfera itxura dute,...

- a. eta ez dute berezko argirik.
- b. bai eta ura ere.
- c. bai eta berezko argia ere.

5. Zenbat denbora behar du Lurra bere ardatzaren inguruan bira egiteko?

- a. 365 egun.
- b. 6 ordu.
- c. 24 ordu.

6. Translazio-higiduraren ondorioz, Lurra...

- a. Eguzkiaren inguruan egiten du bira.
- b. bere ardatzaren inguruan egiten du bira.
- c. Ilargiaren inguruan egiten du bira.

7 .Honako hau Lurraren satelitea da:

- a. Halley kometa.
- b. Eguzkia.
- c. Ilargia.

8. Zein dira Lurraren geruzak?

- a. Atmosfera, geosfera, hidrosfera eta troposfera.
- b. Lurrazala, mantua eta nukleoa.
- c. Atmosfera, geosfera, hidrosfera eta biosfera.

9 .Nola esaten zaio harriak haizearen eta uraren ekintzaren ondorioz gastatzeari?

- a. Higadura.
- b. Garraioa.
- c. Sedimentazioa.

10. Nola esaten zaio Lurraren barnean eratutako harri urtuen eta gasen nahasteari?

- a. Laba.
- b. Errautsa.
- c. Magma